

# KANADA ETA DANIMARKA “GERRAN”



Nagore Irazustabarrena  
Uranga

@irazustabarrena

Nares itsasarte, 1871-1873. Charles Franci Hall esploratzaile estatubatuarak hirugarren espedizioa egin zuen Ipar Polora. Bidean 1,3 km koadroko uhartetxo bat topatu zuen Kennedy kanalaren erdian. Espedizioan Hans Hendrik izeneko itzultzaile inuk bat zeramaten eta, haren omenez, Hans izena jarri zioten lur puskari –nahiz eta benetako izena Suersaq zuen–.

1933an Nazioarteko Justizia Auzitegi Iraunkorrek Groenlandia legalki Danimarkarena zela deklaratu zuen. Froga geologikoak argudiatuta, Danimarkak Hans uhartea ere haiena zela esan zuen.

1972an Kanadako Zerbitzu Hidrografikoak eta Nares itsasartean lanean ari ziren ikerlari daniarrek Hans uhartearen koordinatu geografikoak zehaztu zituzten. Eta hurrengo urtean, 1973an, Danimarka eta Kanadaren arteko iparraldeko mugei buruzko negoziazioetan, Kanadak Hans uhartea beren lurraldearen barruan zegoela aldarrikatu zuen. Baina negoziazio haietan ez zen gobernuen arteko akordiorik itxi uhartearen inguruan. 1983an bi herrialdeek akordio bat sinatu zuten eremu haietan ingurumena zaintzeko, eta Hans uhartearen ikerketak elkarlanean egiteko aukera eztabaidatu zuten, baina ez zuten ezer sinatu.



1984an Høyem daniar ministroa helikopteroz iritsi zen uhartera eta bere herrialdeko bandera jarri zuen. 1988an eta 1995ean antzeko keinuak egin zituzten daniarrek. 2005ean Kanadako Defentsa ministroak irla bisitatu zuen eta, horri erantzunez, Danimarkako Kanpo ministroak adierazi zuen lur zati horren inguruan ez zegoela inolako tirabirarik, uhartea, zalantzarik gabe, daniarra zelako.

Orduraz geroztik, Kanada eta Danimarkaren arteko “gerra” horretan tradizio bitxia sortu da. Urtero, abuztuan, kanadar tropak uhartearen lehorreratzen dira, Danimarkako bandera kentzen dute, Kanadako jarri, eta whisky botila bat uzten dute mezu batekin: “Ongi etorriak Kanadara”. Udaberrian daniarrek zapal-

*Hans uhartea Nares itsasarteko 1,3 km koadroko lur zatia da. Uhartearen jabetzak gatazka bitxia sortu du Danimarka eta Kanadaren artean.* INSH

tzen dute irla. Beren bandera atzera ipini, whiskia edan eta *schnapps* pattar botila bat uzten diete arerioei, beste mezu batekin: “Danimarkako lurraldean zaudete”.

Hala ere, itxuraz baliorik ez duen lur zatia Ipar Mendebaldeko Itsasbidearen erdian dago. Merkataritza bide honek ez du orain arte ia trafikorik izan, baina klima aldaketak Asia eta Ipar Amerikaren arteko garraibide nagusietakoa bihur dezake eta Hans uharteak bidearen kontrola erraztuko du. Bati baino gehiagori txantxetarako gogoa joango zaio orduan. ■



STEFANO BENAZZI / AMERICAN JOURNAL OF PHYSICAL ANTHROPOLOGY

## Duela 13.000 urteko odontologia

Irudian ikusten direnak, duela 13.000 urteko gizaki baten ebakortzak dira, eta Goi Paleolitoaren amaieran praktika odontologikoak egiten zirela erakusten dute. Riparo Fredian aztarnategian (Toskana, Italia) aurkitu zituzten, hortz-interbentzioen arrasto oraindik eta zaharragoak dituen Villabrunako aztarnategitik gertu (14.000 urte). Bai-

na Riparo Fredianeko hortzek besteei eman ez dituzten xehetasunak eskaintzen dituzte: hortzok *ante mortem* zulatatu zituzten, harritzko edo hezurrezko tresnak erabiliz, eta zuloak betun konglomeratuz, zuntz begetalez eta, ziurrenik, ilez bete zituzten, Neolitikoa baino lehen ere praktika biomedikoak egiten ziren seinale. ■